

## KANALAK

Kanalak, bezeroarekiko harreman guneak izanik, garrantzia handia dute. Izan ere, honetan oinarritzen da bezeroak izango duen lehen pertzepzioa, egingo duen ebaluazioa eta azkenengo bi horien arabera izango den erosketa.

Gure enpresak, sortu duen produktua, bezeroarengana iritsi dadin, bai zuzeneko kanal propioa, bai zeharkako kanal elkartua erabiltzea erabaki dugu. Horrela, bezeroak, berarentzat egokiena dena aukeratzeko erosotasuna izateaz gain, produktuak izango duen eskuragarritasuna handituko da eta.

Zuzeneko kanal propioari dagokionez, sortuko dugun web gunea dago, alegia, on line denda. Honetan, eskaintzen ditugun disneinuak agerdiko dira (aurreko ataletan aipatu dugun bezala, hasieran diseinu bat izango dugu arren, denborarekin aukera gehiago sortzen joango gara). Behin diseinu bat hautatzean, produktuaren hainbat argazki eta honen inguruko bestelako informazioa egongo da. Honetaz gain, erosle bakoitzak, produktuaren inguruan duen iritzia iruzkintzeko aukera izango du. Horrela, erosleak produktuaren argazki eta informazioarekin eta erosleen iritziekin, nahikoa informazioa izango du hau ebaluatzeko eta ondoren, erosiko duen edo ez baloratzeko.



Gure web-gunea

Behin kanal honen bidezko erosketa egindakoan, bezeroak bere datuak jarriko ditu: izen abizenak, helbidea eta ordaintzeko erabiliko duen bidea. Honela, bezeroarenganako bidalketa egingo da garraio enpresa bat erabiliz. Bidaltze gastuak bezeroaren kontu egongo dira, 5 guardasoleko eskaeratik gora egin ezean.

Zeharkako kanalak berriz, denda txikiak izango dira. Hauek, aterkiak erosiko dizkigute handizka eta ondoren saldu egingo dituzte. Kanal hau erabiltzeak, abantailak eta desabantailak ditu. Izan ere, izango dugun irabazi-marjina txikiagoa izango da, prezio berezi batera salduko ditugulako baina, era berean, bezeroaren erosotasuna kontuan hartzen dugu, gure enpresaren etorkizuna bermatuz.